



Txirrita, Olegario eta Gastelu 1915eko irailaren 8an Arraten (Eibar)



# Olegario Garin<sup>1</sup>, bertsolari hernaniarra

Antton Garin

*En distintas épocas, Hernani ha contado siempre con renombrados bertsolaris, como Txabolategi, Patxi Bakallo, Txirrita, por citar algunos, y Olegario, que era mayor que Txirrita...*

Olegario Garin Aduriz 1844. urtean jaio zen, Txirrita (1860-1936) baino 16 urte lehenago. Eta oso ezaguna izan zen Hernanin... (*artesano* —karrozari—, *sidrero*<sup>2</sup> y *bertsolari*<sup>3</sup>)... *Se estableció como carroceros en 1888, en Casa San Juan, que después pasa a conocerse popularmente como "Casa Olegario Enea" (gaur, Kale Nagusia, 59).*

*A esta carrocería de Hernani llegó para encargar un trabajo el que fue distinguido bertsolari Pello Errota.*

*Para cuando este volvió a preguntar cómo marchaba el trabajo, Olegario ya lo tenía acabado y listo para que lo llevase, pero antes le cantó un bertso, al que Errota contestó.*

## **Olegario:**

*Karro txiki bat  
astuarentzako,  
Pellok enkargatu nau  
egiteko ondo;  
material iharrakin  
lodi eta sendo,  
bestela ez diola  
luzaro iraungo.  
Baina pagatu gabe,  
ez dek eramango*

## **Eta Pello Errotak honela erantzuz omen zion:**

*Jaunak, Olegario,  
xelebrea zera.  
Lan ere aspalditik banuen  
zure aditzera.  
Zertsu kostea badatik  
gutxi gora behera:  
Urti, ardatza  
eta erruera.  
Hurrena etortzean,  
konponduko al gera.*

<sup>1</sup> EL DIARIO VASCO - Viernes, 23 de junio de 1989. HERNANIKO JAIAK: La singular industria artesanal de "Olegario-Enea".

<sup>2</sup> Olegario Enea sagardotegia ere bazen garai hartan.

<sup>3</sup> Olegario Garin 1909. urtean Hernanin egin ziren Euskal jaietako bertso saioetan parte hartu zuen, Pello Errotaren ordean hain zuzen.



*El popular artesano, sidrero y bertsolari, antes de fallecer, le canta a su mujer otro bertso que todavía se recuerda:*

*Nere andre Domenika,  
nere emazte zana,  
ni behartzen zintzanean  
zerbitzen zidana.  
Lanean ere bazekien da  
gogoz aritzen zana,  
zor guztiak pagatu era  
zerura joan zana.*

Olegario Garin, Dominika Bengoetxea eta haien seme-alabak: Angel, Miguel, Inaxio, Anixeto, Antonio eta Joakina.





## Anekdotak eta xelebrekeriak

Getariako San Anton festak zirela eta Olegariok eta Txirritak abisua jaso zuten bertsotara joan behar zutela. Bezperan, Txirrita *Olegario Enea* sagardotegira etorri omen zen eta egun pasa ederra eman zuten biek. Hurrengo egunean, Olegariok zaldia eta karroa prestatzen zituen bitartean, Txirrita ohean jarraitzen zuen, ezin zuen altxa ohetik. *Jeiki adi ! Jeiki adi ! Berandu degula !* Txirrita ez zen jeikitzen. Halako batean hor azaldu zen sukaldian. *Zer pasatzen zaik? Bartarresean hemen aldatu ninuen da inun ez dit bilatzen galtzerdia ta ez nak juingo galtzerdi batekin.* Orduan Olegariok alabari: *Juan adi dendara ta ekartzion galtzerdiak aguro.* Txirrita hasi zen janzten eta *Ara! Hau ere nik egin behar nin. Nola bilatuko nin ba; biak hanka batian jantzita zeuzkat ta.*

Olegariok zuen karrozeriara goizean goiz joaten zen lanera. Goiza batean semeak joan eta aita falta; kezkatzen hasia zen. Garai hartan Goizuetatik etortzen zen korreoa; Pello zen gidaria eta honi Olegarioren semeak hala galdetu zion: *Pello, ez itun ikusiko bide hortan gure aita ta Txirrita?. Bai! Pagoagako hortan ziaztiken.* Semeak: *Hoik dituk hoik nora ote zijoaizen.* Goizuetara iritsi ondoren gaupasa egin zuten *Juan Aundienea* ostatuan, eta hurrengo goizean alpargata berriak erosi, kolkoan sartu eta segi Ezkurra-raino berriro oinez, festetan bertsoak kantatzera biak.

Mendiola baserri-sagardotegian hiru egun pasa ondoren Olegario aldatzera etxera joan zen. Txirritarentzat ere arropa hartu eta gero berriro elkartu ziren biak Mendiolan. Han, hala esan zion Olegariok Txirritari: *Txandrenean jua behar diagu, ba han sagardo edarra omen dek.* Biak laugarren eguna pasatzera joan ziren; nahiko sagardo eta bertsoa izan baitzuten!

Olegario bertsolaria oso laguna zuen Txirritak. Hil zela jakin zuenean ikustera joan omen zen. Hilikutxatxo beltz batean sartua omen zegoen lau kandelen erdian, gurutze txiki bat eskuetan eta lore batzuk ere bai ondoan.

Hamaika bider bertsotan jardunak ziren biak elkarrekin eta Txirritak agurtu zuen beti bezala bertso batekin. Olegariok ez zion bertso berririk trukatu, *ba hila zegoen gaixoa eta!* Txirritak ala erantzun zion orduan: *Oraintxe sinisten dit benetan hil haizela; ez hintzan bestela erantzun gabe geratuko.*

### AITONA OLEGARIORI

Antton Garin

1

**Badira urtiak joantzinala aitona zu hemendikan. Zure umorea eta bertsoak ez degu ahaztu oraindikan. Karro egile famatua eta bertsolari gañetikan. Zuk izandako bizitza ederra ez da izan alperrikan.**

2

**Pena haundi beti izan det aitona ez ezautua. Etxian bertan izango nuen bertsotarako maisua. Txirritarekin hara eta hona hartuz zaldi eta karrua. Herri askotan biok jarriaz umore eta bertsua.**

3

**Agur eder bat gaur esanez malkoak ditut begian. Gertatzen baita Olegarioren histori bat egitikan. Bertso txaloka han egongo da pozik izarren artian. Garin familia ez gera ahaztuko bizi garen bitartean. ■**